

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

1976

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 10ekoa, Merkataritzako zuzendariarena, zeinaren bidez entzunaldi-izapidea eman eta jendaurrean jartzen baita Euskadiko Merkataritza Elkartearen Erregistroa sortzen eta arautzen duen dekretu-proiektua.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko Merkataritza Elkartearen Erregistroa sortzen eta arautzen duen dekretu-proiektua prestatu du, eta ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, ezarritakoaren arabera izapidetu behar da.

Lege horretako xedapenak betez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak dekretu-proiektu hori egiteko prozedurari hasiera emateko agindua eman zuen 2024ko martxoaren 7an.

Aipatutako 6/2022 Legeak 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, entzunaldi-izapidearen eta jendaurrean jartzeko izapideak herritarren eskubide eta interes legitimoen zuzenean eragiten zaien guztietan egin behar dira, baldin eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, Euskadiko Merkataritza Elkartearen Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Horregatik guztiatik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 9. artikulua Merkataritza Zuzendaritza ematen dion eskuduntzaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entzunaldi-izapidea ematea eta jendaurrean jartzea Euskadiko Merkataritza Elkartearen Erregistroari buruzko dekretu-proiektua, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, alegazioak aurkezteko aukera eman ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan egongo da eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Hirugarrena.– Alegazioak elektronikoki aurkeztu behar dira <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/helbidean>.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 10a.

Merkataritzako zuzendaria,
MARÍA ELENA MORENO ZALDIBAR.